

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Erandioko Udala**

Erandioko ostalaritza-sektoreari zuzendutako aparteko dirulaguntzak arautzeko oinarriak, COVID-19ak sortutako krisiak eta alarma-egoera berriak sektorean izandako eragina dela eta (Alkatearen Dekretua 2420/2020).

Merkataritza Arloko delegatuak ostalaritza-sektoreari zuzendutako dirulaguntzen aparteko deialdia onesteko eskatu du, COVID-19ak sortutako krisiak eta alarma-egoera berriak sektoreari zelan eragin dion ikusita.

Aurrekariak. Erandioko Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzarekin, Administrazio honetan aplikatuko diren marko juridikoa eta irizpideak ezarri nahi izan ditu Udalak.

Oinarriak. Abenduaren 17ko 38/2003 Legea, Diru Laguntzen Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen gaineko Araudia onartzen duena.

Oinarriak. Erandioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza, 2011ko otsailaren 24an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua. Hori guztia kontuan izanik,

Ondokoa onestea erabaki du:

«ERANDIOKO OSTALARITZA-SEKTOREARI ZUZENDUTAKO APARTEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK, COVID-19AK SORTUTAKO KRISIAK ETA ALARMA-EGOERA BERRIAK SEKTOREAN IZANDAKO ERAGINA DELA ETA»

Lehengoa. – Atarikoa

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen SARS-COV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko, eta zenbait neurri adierazi ziren birusaren hedapenari aurre egiteko.

Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez, prebentzio-neurri espezifikokoak zehazten dira alarma-egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoen bilakaeraren ondorioz eta SARS-COV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

Neurri horiek berriro ebaluatu dira lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuan (dekretu horren bidez aldatu da lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoen bilakaeraren ondorioz eta SARS-COV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko) eta neurri horien artean honako neurri hau ezarri da «Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezartzen da, hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuetako jantokietan izan ezik. Etxez etxeko otorduak prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira, edo bertan jasotzeko alde zurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte».

Prebentziozko itxiera horren aurrean, Erandioko Udalak interesgarritzat jotzen du aparteko laguntza ekonomikoen lerro bat ezartzea, itxierak udalerriko ostalaritza-establezimenduetan duen eragina murrizteko.

Bigarrena. – Araudia

Honako hauetan xedatutakoa bete da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa (2003ko azaroaren 18ko «BOE»).
- 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren araudia onartzen duena (2016ko uztailaren 25eko «BOE»).

**Hirugarrena. — Helburua**

Oinarri arautzaile hauen helburua ostalaritza-sektoreko enpresa txikiei laguntza ekonomikoa ematea da, COVID-19aren hedapena geldiarazteko hartutako neurrien eragina minimizatzeko.

Ondorioz, oinarri hauen xedea da itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ematea, honako jardunbide honi zuzenduta:

«Erandioko ostalaritza-sektoreari zuzendutako aparteko dirulaguntzak, COVID-19ak sortutako krisiak eta alarma-egoera berriak sektorean izandako eragina dela eta» laguntza hauek 4. atalean adierazitako erakundeen gastuei laguntzeko dira.

Laugarrena. — Onuradunak

1. Oinarri hauetan araututako laguntzen («Erandioko ostalaritza-sektoreari zuzendutako aparteko dirulaguntzak, COVID-19ak sortutako krisiak eta Alarma-Egoera berriak sektorean izandako eragina dela eta») onuradun izan daitezke legez eraturako pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta Erandioko udalerrian jarduten badute eta Lehendakariak azaroaren 6an emandako 38/2020 Dekretuaren eraginpean geratu den ostalaritzaren sektorekoa bada jarduera.

2. Enpresak enpresa txikiak izan beharko dira.

Oinarri arautzaile hauen ondorioetarako, enpresa txikitat hartuko da 50 langile baino gutxiago dituen eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik beherakoa duen enpresa (2014ko ekainaren 17ko Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 1. eranskinaren 2.2 artikuluan zehaztutako definizioaren arabera).

3. Irekitzeko lizentzia edo jardueraren aurretiazko jakinarazpena behar bezala egin da edukitzea. Baldintza hori Administrazioak berak egiaztatuko du Erandioko Udaleko Merkataritza arloan.

4. Administrazio Publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta beste betebeharrak egunean edukitzea.

Erandioko Udalarekiko zerga-betebeharren egoera Merkataritza arloak berak egiaztatuko du.

5. Pertsona edo erakunde eskatzaileak alta efektiboa emanda eduki beharko du Ekonomia Jardueren gaineko Zergan 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu aurretik.

6. Norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kasuan, 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu aurretik Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.

7. Aurreikusitako betekizunak itxiera-aldian mantendu beharko dira, eta, gutxienez, hura amaitu ondorengo lau hilabeteetan. Era berean, erakunde onuradunak EJZn alta emanda egon beharko du, gutxienez aldi horretan.

8. Edonola ere, honako hauek ezingo dute oinarri hauetan araututako dirulaguntzarik jaso:

— Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 13.2 artikuluan zehaztutako kasuetakoren batean dauden enpresak edo erakunde eskatzaileak.

— Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateak, Administrazio Publiko, sozietate publiko eta horiei lotutako edo horien mendeko entitateak, eta zuzenbide publiko bidez sortu edo zuzendutako enpresak.

Onuradunek laguntza-programan parte hartzen duten aldi osoan bete beharko dituzte oinarri hauetan araututako baldintzak.

Bosgarrena. — Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Oinarri hauen babesean diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira:

a) Dirulaguntzaren xede den jarduera garatzen den lokala edo hiri-finka alokatze-ko gastuak, 2020ko azaroaren 1etik (itxiera indarrean sartzeko hilabetea)



2020ko abenduaren 31ra arte hartzen duen denbora-eremuari dagozkionak, betiere lokala edo hiri-finka pertsona edo erakunde eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada.

- b) Dirulaguntzaren xede den jarduera garatzen den lokalaren edo hiri-finkaren erosketa estaltzeko hipoteka-maileguen edo mailegu pertsonalen kuotak (amortizazioa + interesak), 2020ko azaroaren 1etik (itxiera indarrean sartzen den hilabetea) 2020ko abenduaren 31ra arte hartzen duen denbora-eremuari dagozkionak, betiere lokala edo hiri-finka pertsona edo erakunde eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada.
- c) Dirulaguntzaren xede den jarduera garatzen den lokalaren berritzea estaltzeko hipoteka-maileguen edo mailegu pertsonalen kuotak (amortizazioa + interesak), 2020ko azaroaren 1etik (itxiera indarrean sartzen den hilabetea) 2020ko abenduaren 31ra arte hartzen duen denbora-eremuari dagozkionak, betiere lokala pertsona edo erakunde eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada.
- d) Gastu arrunt hauek, baldin eta dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zuzenean lotuta badaude: argi-horniduraren eta telekomunikazio-zerbitzuen gastuak (telefonoa eta Internet), 2020ko azaroaren 1etik (itxiera indarrean sartzen den hilabetea) 2020ko abenduaren 31ra arte hartzen duen denbora-eremuari dagozkionak. Kontratututako zerbitzuaren fakturazioa hilean behin egiten ez bada, adierazitako epeari dagokion zenbatekoa lagunduko da diruz.
- e) Langile Autonomoen Araubide Berezian norberaren konturako langile gisa kotizatu izanaren ordainketari dagozkion kuotak, 2020ko azaroaren 1ekoak (itxiera indarrean sartzen den hilabetea) eta 2020ko abenduaren 31koak.

2. Fakturako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da inola ere gastu hautagarritzat hartuko.

3. Eskaera bakarra onartuko da eskatzaile bakoitzeko, salbu eta eskatzaile hori titularrak bada eta bere jarduera herriko hainbat establezimendutan egiten badu; kasu horretan, bere titulartasuneko establezimendu edo lokal adina laguntza-eskaera onartuko dira.

Seigarrena. — Aurrekontu-zuzkidura

Deialdi honetarako (2020ko ekitaldia) gehienez ehun eta hogeita mila (120.000,00) euroko zuzkidura dago, 2020ko udal-aurrekontuko 31 4314 47112 diru-partidaren kargura.

Zazpigarrena. — Diruz lagun daitekeen zenbatekoa

1. Oinarri hauetan jasotako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira.
2. Aurkeztutako kontzeptu bakoitzaren % 100 lagunduko da diruz.
3. Dirulaguntzarako aurkeztutako gastu guztiengatik eman beharreko laguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da 1.000 eurotik gorakoa izango diruz lagun daitekeen establezimendu bakoitzeko.
4. Erabilgarri dagoen aurrekontu-partida ez baldin bada oniritzia jaso duten eskaera guztiei erantzuteko adinakoa, dirulaguntzen ehuneko hori eskatzaile guztiei proportzionalki jaitsiko zaie.

Zortzigarrena. — Dirulaguntza jasotzeko aldia

Diruz lagunduko diren jarduketak eta gastuak 2020ko azaroaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra gauzatuak edo eskuratuak izan beharko dira, biak barne.

Bederatzigarrena. — Eskaerak aurkezteko tokia eta epea

Eskaerak HAZ-Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan aurkeztuko dira (Antonio Trueba Zeharkalea, 2 / Meso kalea, 20), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 16. artikuluan aipatutako bideak erabiliz.



Oinarriok eskuragarri egongo dira www.erandio.eus webgunean, Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan (HAZ) eta Merkataritzako bulego teknikoan.

Eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 15 egun natural geroago amaituko. Ez dute inola ere laguntzarik jasoko diruz lagun daitezkeen ekintzak gauzatzeko epez kanpo egindako jarduketek, ez eta eskaerak aurkezteko epez kanpo aurkeztutako eskabideek ere.

Eskaera-orriko baldintza guztiak ez badaude behar bezala beteta, edo ez badute beharrezkoa den dokumentazioa erantsi, erakunde eskatzaileari eskaera zuzendu edo behar diren agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio, eta hamar eguneko epea izango du horiek ekartzeko. Horrela egin ezean, eskaera atzera botako da, eta eskaera horren inguruko erabakia emango da beren-beregi, bai eta jakinarazi ere.

Enpresa edo erakunde interesatuek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarriak oso-osorik onartzea.

Erabakia hilabete baten buruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik hasita.

Hamargarrena. – Aurkeztu beharreko agiriak

1. Establezimendu bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da; nolahi ere, enpresa batek laguntza horiek eska ditzaketen hainbat establezimendu baditu, bakoitzarentzat eskaera bana egingo du.

2. Erakunde eskatzaileek horretarako aurreikusitako eskabidea eta gainerako formularioak bete beharko dituzte, besteak beste:

- 2.1. Eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuen xehetasunak.
- 2.2. Honako alderdi hauei buruzko erantzukizunpeko adierazpena:
 - a) Eskatzaileari buruzko datuak. Zehaztu beharko da pertsona fisikoa edo juridikoa den, laguntza eskatzen duen establezimenduaren kokapena eta izena, eta eskabidean aipatzen den establezimendua zein epigrafetan dagoen alta emanda jarduera ekonomikoan gaineko zergan.
 - b) Erakunde onuradun izateko deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela.
 - c) Pertsona edo erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan onuradun izateko ezarritako debeku-egoeretako batean ere.
 - d) Enpresa bada, enpresa txikitzat jotzeko beharrezko baldintzak betetzen dituela:
 - 1) 50 langile baino gutxiago ditu, eta deialdi honen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n gehienez 10 milioi euroko negozio-bolumena du.
 - 2) 50 langile edo gehiago eta 10 milia eurotik gorako negozio-bolumena duen enpresa batek ez duela kapitalaren % 25eko edo gehiagoko partaidetza.
 - e) Laguntzaren xede den establezimendua Erandion dagoela, eta martxan zegoela 2020ko urriaren 25ean alarma-egoera deklaratu aurretik.
 - f) Epai irmo baten bidez ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dion zehapen penal edo administratiborik jaso, eta ez duela horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik.
 - g) Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduretan.
 - h) Ez dagoela zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua arabera.



- i) Jarduera nagusia ez dela janari eta edariak etxez etxe banatzea, ezta establezimenduan jasotzea ere.
- j) Finantziazioaren inguruko erantzukizunpeko adierazpena, jatorrizkoa eta behar bezala sinatuta, honakoa adierazten duena:
 - Ez duela eskatu edo jaso Erandioko Udalak emandako dirulaguntzarekin bateraezina den inolako funtsik.
 - Erandioko Udalak emandako dirulaguntzarekin bateragarri diren funtsak edo laguntzak jaso edo eskatu dituela (erakundea eta helburua zehaztu behar dira).

Eskaeran jasotako datuen egiazkotasuna espedientearen tramitazio-aldi guztian zehar egiaztatu ahal da.

Goian aipatutako erantzukizunpeko adierazpenean agertzen den datuen bat faltua izanez gero, administrazio- zein zigor-araubidearen arabera dagokion zehapena jasoko du.

3. Eskaera egiten duten enpresek, eskaerarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte: Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasuneko betebeharrak egunean egotearen egiaztagiri eguneratuak.

Hamaikagarrena. – *Prozedura, instrukziorako organo eskumenduna eta ebazpena*

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aztertu eta ebatzi egingo dira.

Prozedura ebazteko organo eskumenduna Alkatetza-Lehendakaritza izango da.

Hamabigarrena. – *Errekurtsoak*

Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari. Hala ere, horren aurka berraztertzeko errekurtsua ezarri ahal izango da berau eman zuen organo berberaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da auzitegi eskudunear, 2 hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hamahirugarrena. – *Gastuak justifikatzea*

1. Justifikazioak HAZ-Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan aurkeztuko dira (Antonio Trueba Zeharkalea, 2 / Meso kalea, 20), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) 16. artikuluan aipatutako bideak erabiliz.

2. Laguntzen onuradunek laguntza justifikatzeko inprimakia aurkeztu beharko dute, behin bakarrik, 2021eko otsailaren 28a baino lehen, eta honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- a) Indarrean dagoen alokairu-kontratua, jarduera garatzen den negozioaren lokalari egindako errentamenduaren ordainketaren fakturak eta egiaztagiriak, 5.1 a) atalean jasotako denbora-eremuaren barruan dirulaguntzarako aurkeztutako hilabeteei dagozkionak.
- b) Jabetza-eskiriturak eta hipoteka-maileguaren formalizazio-eskiriturak, bai eta maileguaren kuotaren ordainagiriak ere, jarduera garatzen den negozioaren lokalari dagozkionak, 5.1 b) paragrafoan jasotako denbora-eremuaren barruan dirulaguntzarako aurkeztutako hilabeteei dagozkienak.
- c) Hipoteka-maileguaren formalizazio-eskiriturak, bai eta maileguaren kuotaren ordainagiriak ere, jarduera garatzen den negozioaren lokalaren berriatzea dagozkionak, 5.1 c) paragrafoan jasotako denbora-eremuaren barruan dirulaguntzarako aurkeztutako hilabeteei dagozkienak.
- d) 5.1.d) atalean adierazitako gastu arrunten fakturak eta ordainagiriak, atal horretan jasotako denbora-eremuaren barruan dirulaguntzarako aurkeztutako hilabeteei dagozkienak.
- e) Langile Autonomoen Araubide Berezian norberaren konturako langile gisa kotizatzeke kuoten ordainketen egiaztagiriak.



- f) Eskatzailea pertsona fisikoa bada: Nortasun agiriaren fotokopia.
- g) Pertsona juridikoa bada: Identifikazio fiskalaren txartelaren fotokopia, enpresa sortu eta ondoren jasandako aldaketen eskriturak, legezko ordezkariaren NANA eta ordezkari-tzita-boterea.
- h) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eta baja emandako ziurtagiria.

Ordainketak egiaztatzeko, transferentziaren kopia, taloia, txeketa edo ordainketa hori egiaztatzen duen beste edozein agiri aurkeztu beharko da, edo dagokion kargua jasotzen duen banku-laburpenaren fotokopia, edo finantza-erakundeak emandako ziurtagiria.

3. Dirulaguntza aurreikusitako epeetan justifikatzen ez bada, emandako dirulaguntza osorik itzuli beharko da; beraz, aurreko paragrafoan aurreikusitako justifikazio-epeak igaro eta justifikaziorik egin ez bada, dagokion prozedurari ekingo zaio jasotako zenbaketokoa itzuli beharra deklaratzeko, errekerimendua egin ondoren.

Hamalagarrena. – Dirulaguntza ordaintzea

Oro har, eskaera bakoitzeko ordainketa bakarrean ordainduko da dirulaguntza.

Hamabosgarrena. – Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin elkartzea

Agindu honetan ezarritako laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 zenbakiko Erregelamenduan (EE) ezarritako «minimis» arauak errespetatuko dituzte. Hain zuzen ere, Erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan «minimis» laguntzei aplikatzeari dagokio. Halaber, Europar Batasunak xede horretarako emandako beste zuzentarau edo xedapenak ere errespetatuko dituzte.

Dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazioek edo erakunde publiko edo pribatuak kontzeptu eta xede bererako emandako beste edozein dirulaguntzarekin. Dena den, dirulaguntza guztien baturak ezingo du gainditu oinarri hauen bidez diruz lagundutako inbertsio-proiektuaren kostua.

Hamaseigarrena. – Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzeak berekin dakar emandako dirulaguntza ere aldatzea, betiere berau emateko ezarritako baldintzak babesten badira.

Hamazazpigarrena. – Erakunde onuradunen betebeharrak

- a) Diruz lagundutako erakundeak EJZn altan jarraitu beharko du prebentziozko itxiera-aldia amaitu eta hurrengo lau hilabeteetan.
- b) Erandioko Udalak egoki irizten dituen egiaztapen-jarduketarako prest agertzea, eta diruz lagundutako proiektuari buruz eskatzen zaion informazio edo dokumentazioa aurkeztea.
- c) Erandioko Udalari berri ematea dirulaguntza emateko aintzat hartutako edozein egoera aldatuz gero.
- d) Erandioko Udalari behar adina informazio eta dokumentazio osagarri ematea, dirulaguntzaren eskaera ulertu eta ebaluatu dezan.
- e) Deialdi honen ostean, Udalak diruz lagunduko dituen gastu berberetarako beste erakunde publiko edo pribatu batek beste laguntza edo dirulaguntzarik eman badio, Erandioko Udalari jakinaraztea. Jakinarazpena idatziz egin beharko da, horren berri izan eta hamar eguneko epean.
- f) Dirua itzultzea, baldin eta ez bada betetzen honako deialdi honetan ezarritakoa.
- g) Jasotako diruaren inguruko ziurtagiri eta fakturak gordetzea, agiri elektronikoak barne, gutxienez 4 urtez, diruz lagundutako jardueraren azken ziurtagiria jaso eta biharamunetik hasita.
- h) Euskararen erabilera Plana (2018-2022) izeneko araudiko X. atalean ezarritako irizpideak betetzea.



(Gauzak horrela, Erandioko Udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek diruz lagundutako jardueraren bitartez sortzen diren dokumentu, euskarri, publizitate eta agerpen publiko guztietan bi hizkuntza ofizialen erabilerrari buruzko berdintasun irizpide bat erabili beharko dute, era horretan ziurtatzen baita harreman hizkuntza hautatzeko eskubidea, diruz lagundutako jardueretan jendaurreko emaitzei dagokienez.

Hamazortzigarrena. — Oinarriak ez betetzea, dirua itzultzea eta zehapen-araudia

Enpresak betebeharren bat betetzen ez badu, dirulaguntzaren eskatzaileari egotziko zaio; dirulaguntzaren kopurua modu proportzionalan jaitsiko zaio edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoa eta legez dagozkion interesak itzuli beharko ditu.

Ondoren adierazitako kasuetako bat gertatuz gero, eskatzaileak itzuli egingo ditu jasotako diru-kopurua eta dirulaguntza jaso denetik izandako berandutze-zergari dagozkion kopuruak:

- Dirulaguntza jasotzea, eskatutako baldintzak bete gabe.
- Diruz lagundutako jardueraren xedea ez gauzatzea.
- Oinarri hauetan edo dirulaguntza emateari buruzko ebazpenean ezarritako beste edozein baldintza ez betetzea.

Alkatetza-Lehendakariak adostuko du Dirua itzultzeko betebeharra, erakunde onuradunari entzun ostean.

Hemereitzagarrena. — Ordezko araubide osagarria

Oinarri hauetan zehazten ez diren kasuetan honako lege hauek aplikatuko dira: 2003/38 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa, eta horren garapenerako araudia; 2015/39 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa; eta 2015/40 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

HOGeigarrena. Datu pertsonalen babesa.- Dirulaguntza jasotzeko eskaera-orria aurkeztean, erakunde eskatzaileak oniritzia eman eta aitortzen du deialdian eskatutako baldintzak betetzen eta termino guztiak osorik onartzen dituela.

Horrez gain, jakinarazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenpean hartu direla, eta onartu egiten duela datuok automatizatu eta Udal honek behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea. Horrez gain, baimena ematen du datuok udal kudeaketarako soilik erabiltzeko, eta beste Herri Administrazio eta Erakunde batzuei laga edo komunikatzeko, honako lege hauetan agertutako kasuetan: 1999/15 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa; 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Interesdunek datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute; horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko dute Erandioko Udalean, HAZ-Herriarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan (Antonio Trueba Zeharkalea, 2, Meso kalea, 20).

Hogeita lehengoa

Dekretua ondoren adieraziko direnei jakinaraztea: Ekonomia Sustapena eta Tokiko Garapena, Gazteria, Musika Eskola, Hezkuntza eta Merkataritza, eta Kontuhartzailatza sailei. Era berean, Idazkaritza sailari ere jakinaraziko zaio, kontu hartu eta alkateak zein eskuordetza duten korporazioko kideek emandako Ebazpenen Liburuan jasota gera dadin. Era berean, deialdi honi hedapen izateko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaleko web orrian eta iragarki taulan argitaratu beharko da.

Alkateak hala dekretatu eta izenpetu du.

Erandion, 2020ko azaroaren 26an.— Alkatea, Aitziber Oliban Gutiérrez.— Kontu hartua, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2.e) artikulua betez.— Behin-behineko idazkaria, Javier Basante Otegi

Erandion, 2020ko urriaren 26an.— Alkatea, Aitziber Oliban Gutiérrez